

DIRU SARRERAK



Gure proiektua martxan jartzeko beharrezkoa da nondik lortuko dugun dirua zehaztea. Sortutako online dendan erosten duten bezeroak 4'99€ ordainduko dute gure zerbitzuaren bitartez erositako jantziak etxera iristeko. Ordainketa bakarreko diru-sarrerak izango dira, produktua erosterako momentuan ordainduko kopuruak.

Komunitatearentzat mesedegarria izango den proiektu bat martxan jarriko dugunez, diru laguntzak ere jasotzea espero dugu hainbat iturri ezberdinetik. Urola Kostako Udal Elkarteak eskaintzen duen diru-laguntzaz eta ahal izanez gero Eusko Jaurlaritzak ekintzaile gazte berriei ematen dienaz baliatzen saiatuko gara.

Hauei esker egin beharko dugun inbertsioaren zati bat lortzera iritsiko ginateke, produktuak ekoizteko beharrezkoak diren 3 josteko makinak erostea ahalbidetuz. Gure proiektua aurrera ateratzeko 6.714€ behar izango ditugula kalkulatu dugu.